



BERARIAZKO NEURRIAK (SARBIDE-EGOKITZAPENAK) DERRIGORREZKOAREN ONDOKO ETAPAN ADIMEN-DESGAITASUNAREN ONDORIOZ HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEENDAKO

67/2022 Foru Dekretuak, haren 15. artikuluan 2. puntuan, honako hau dio, banako premiei erantzuteari dagokionez: *“ikasteko zailtasunak detektatu eta berehala neurri inklusiboak hartuko dira, antolaketakoak, curriculumekoak eta metodologikoak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek etapako helburuak eta konpetentziak lortu ahal izateko”*.

69/2023 Foru Aginduak hezkuntza inklusioa arautzen du, eta haren III. kapitulan, hezkuntza ekitaterako eta inklusiorako neurriak eta jarduketak ezartzen ditu. Neurri orokorrak, berariazkoak eta ezohikoak aipatzen ditu. Zehazki, 11. artikuluan, berariazko neurrien barruan, 3.a apartatuan, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen sarbidea errazteko egokitzapenak ezartzen ditu. Artikulu horretan bertan honako hau aipatzen da: *“Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren proposamenak ere baliatzen ahalko dira, erantzun hori doitzen laguntzeko”*.

Haur Hezkuntzan ari diren ikasleen ebaluazioa arautzen duen 59/2023 Foru Aginduaren 22. artikulua, Lehen Hezkuntzakoa arautzen duen 52/2023 Foru Aginduaren 9. artikulua, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa arautzen duen 53/2023 Foru Aginduaren 9. artikulua, hurrenez hurren, banakako desberdintasunei erantzuteari buruz mintzo dira, eta, zehazki, haien 2.b apartatuan, sartzeko curriculum-egokitzapenak barne dituen hezkuntza-laguntza edo -errefortzua (HE-SCE) jasotzen dute. Hau da dioena:

“Ohikoak ez bestelako baliabide materialak eta sarbide baliabideak behar dituzten ikasleei zuzendutako neurria da sartzeko curriculum egokitzapenak barne hartzen dituen hezkuntza laguntza edo errefortzua. Arreta berezia jarri beharko da neurri hori aplikatzen zaienean entzumen, ikusmen edo motrizitate arazo larrien edo bestelako edozein desgaitasunen ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei. Ebaluaziorako erreferenteak ikaslea matrikulatuta dagoen arlorako eta mailarako ezarritako gaitasun espezifikoak eta ebaluazio irizpideak izanen dira. “HE-SCE” neurria hasierako ebaluazioan jasoko da eta, dagokion balorazioarekin batera, aplikatu den hiruhileko ebaluazioetan ere bai, baina ez amaierako ebaluazioan, azken horretan balorazioa bakarrik jasoko baita”.

ALDEZ AURREKO HITZAURREA

Adimen-desgaitasuna duten eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapan prestakuntzaren bat egiten duten ikasleen profila askotarikoa da, eta, beraz, hainbat motatako egokitzapenak egitera behartzen du. Laguntza-premia handiak dituzten ikasleek Helduarora Igarotzeko Programa (HIP) batean eskolatzen jarraitzen dute, curriculumaren elementu guztietan eta testuinguruan egokitzapen handiak egin ondoren. Laguntza handirik behar ez duten eta adimen-desgaitasuna duten ikasleak LHko maila guztietan sartzen dira, haien hezkuntza-ibilbidearen arabera.

LHko hezkuntza-etapa horri buruzko egungo araudiak egokitzapenei buruzko erreferentzia argiak jasotzen ditu artikuluetan. 659/2023 Errege Dekretuak, uztailaren 18koak, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duenak, honako hau ezartzen du: *«Graduak programatzean, kontuan hartuko dira hezkuntza- edo prestakuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten pertsonentzako egokitzapenak, pertsona horiek ikaskuntzan sartzeara, irautea eta aurrera egitea berma dadin, eta, horrela, definitutako gaitasunak (lanbide-profila osatzen dutenak) eskuratzeko prozesua erraztuko da»*. Hala ere, ez da zehazten zein den egokitzapen-maila eta nola zehazten den curriculumaren elementuetan.

Ebaluazioari dagokionez, errege-dekretu horrek zehazten du ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuetan egokitzapenak egin behar direla. *“Egokitzapen horiek ez dira inola ere kontuan hartuko lortutako kalifikazioak txikiagotzeko.”*.

Adierazi behar da Lanbide Heziketaren integrazioari eta antolamenduari buruzko 3/2022 Lege Organikoan araututako egungo Lanbide Heziketako sistemak erraztu egiten duela ikaskuntzak egokitzea prestakuntzan doikuntzak behar dituzten ikasleendako; izan ere, «konfigurazio malgua, modularra, eta premia indibidual eta kolektiboetara egokitzen diren prestakuntza-ibilbide progresibo, jarraitu eta metagarrietan oinarritua» ezartzen du.

Nafarroan, oinarritzko gradu arruntez gain, ekainaren 13ko 194/2023 Ebazpenak araututako oinarritzko gradu espezifikokoak daude. Oinarritzko gradu espezifikokoak hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleei zuzenduta daude; ikasle horiek malgutasun handiagoa behar dute hezkuntza-prozesuan eta, aldi berean, curriculumean sartzeko berariazko laguntzak behar dituzte.

Gainera, Nafarroan, Hezkuntza Departamentuak erabaki zuen otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian babestutako lanbide-heziketako beste programa batzuk arautzea eta 2015-2016 ikasturtean ezartzea, «Lanbide Heziketa Berezikoko zikloak» izenarekin, adimen-desgaitasunaren ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen prestakuntza- eta kualifikazio-beharrei erantzuteko. Prestakuntza hori C graduarekin identifikatzen da (1. mailako ziurtagiri profesionala), eta etengabeko prestakuntzako eta lanbide-prestakuntzako moduluetan egokitzapenak egitea

dakar.

Dokumentu honen bidez, orientabideak eman nahi ditugu Lanbide Heziketa ikasten duten eta adimen-desgaitasuna duten ikasleen antolamendu-, metodologia- eta ebaluazio-mailetarako. Kontuan izan behar dugu ikasle horietako gehienak Lanbide Heziketa Bereziko zikloetan eskolatzen direla, batzuk oinarritzko gradu espezifikotan eta gutxiago erdi-mailako graduetan.

Ikaslearen izen-deiturak:

Taldea:

Irakasgaia:

Ikasturtea:

1. IKASGELAN LAN EGITEKO ORIENTABIDEAK

1.1. ANTOLAMENDUAREKIN LOTURIKO ALDERDIAK

Konfiantza eta desberdintasunarekiko errespetuan oinarritzen den ikasgelako harreman-giroa sortzea.	
Taldeko kide izatearen sentimendua sortzea, ikasle bakoitza horren atal aktiboa dela.	
Ikastetxeko gela, antolamendu-egitura eta irakasle guztiak ezagutzen laguntzea, ikastetxearen identifikazioa eta kidetasuna indartzeko.	
Lotura positibo eta pertsonala sortzea adimen-desgaitasuna duen ikaslearen eta irakasleen artean.	
Ikasgelako tutorearen figura sustatzea –eta ez espezialistarena–, ikasleen erreferente argi gisa.	
Funtzio anitzeko espazioak ezartzea, modu anitzean lan egiteko: taldeetan, tailerrean, batzarrean (ATECA gela).	
Atsedenerako edo lasaitasunerako gune bat sortzea.	
Ikasgela apaintzea, ikasleek eta irakasleek adostutakoaren arabera.	
Irakasleek ikasleen lana gainbegiratzea, etengabeko feedbacka eginez.	
Ikasgelako taldearekin bizikidetza-arauak adostea, ikasgelak ongi funtziona dezan.	
Ikasgela mantentzeko erantzukizun-rolen txandak ezartzea (norberaren ardurak)	
Arreta-zailtasunak dituzten ikasleak distrakzio-elementuetatik urrun jartzea.	
Adimen-desgaitasuna duten ikasleen rol aktiboa sustatzea ikastetxeko jarduera guztietan, mendekotasuna alde batera utzita, baita ordezkariaren lana ere.	
Ikasgelako agenda erabiltzea zereginak, ebaluazioak, txangoak eta abar antolatzeko eta	

denboran ezartzeko.	
---------------------	--

1.2. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen, oro har, hobeki hautematen dute informazioa ikusizko bidetik. Hori dela eta, informazioa bide horretatik eta modu multisentsorialean ematea, irudietan, marrazkietan, irudikapen grafikoetan, ikonoetan eta abarretan oinarrituta.	
Askotariko materiala eta material osagarria erabiltzea ikaskuntzak finkatzeko, bideo, argazki, irudi, Power Point, Read and Write, pantaila digital eta abarren bidez.	
Zeregin funtzional eta motibatzaileak eskaintzea.	
Erredundantzia-printzipioa inplementatzea, hainbat irakaskuntza-modu, baliabide eta zentzumen-kanal emanez, baita eduki berari buruzko askotariko jarduerak ere, ikasitakoa finkatzen laguntzeko.	
Modulu teknikoetan, garrantzitsua da eskuratutako lanbide-trebetasunen gainikastea kontuan hartzea, eta horiek errepikatzea planifikatzen diren ikaskuntza-egoeretan.	
Ikasleen adinarekin eta prestakuntza-etaparekin bat datozen materialak, testuak eta irudiak aurkeztea.	
Irakaskuntza mailakatua egitea, zereginak azpi-urrats sekuentzialetan banatuz zailtasun txikienetik handienara, alde aurreko ezagutzak kontuan hartuta.	
Lan-egitura argia mantentzea, denboran irauten duten lan-errutina batzuk garatuz.	
Jarraibide orokor eta zehaztugabeen ordeztu, jarduteko jarraibide, estrategia eta modu zehatzak ematea.	
Zuzeneko laguntza eta erakustaldiak edo ereduak erabiltzea, azalpen luzeen ordeztu, eta laguntza amaitzea ikaslearen autonomia handitu ahal.	
Arreta-kontrollean eraginkortasun txikiagoa dutenez, hasieran denbora-tarte laburretan lan egitea eta pixkanaka tarte horiek luzatzea iradokitzen da.	
Ikasle horiek partaide dituzten giro, egoera eta jardueretan baldintza egokiak ahalbidetzea, horiek arrakastaz bete ahal izan ditzaten.	
Hasieran, zailtasunak izaten ahal dituzte jarduera bakarrik –hau da, laguntzarik gabe– egiteko, eta garrantzitsua da laguntzea eta gidatzea, independentzia handiagoa lortu arte.	
Gehiegizko babesa saihestea ikasgelan, ikastetxean, eta adimen-desgaitasuna duten ikasleei arreta ematen dieten profesionalen eskutik.	
Ikasle horiek denbora luzeagoa behar dute erantzuteko; garrantzitsua da irakasleak denbora hori errespetatzea, beste ikaskide bati hitza eman gabe edo berak zuzenean erantzun gabe.	
Funtsezkoa da eguneroko bizitzako egoerak konpontzeko aukera ematea, ikasleei aurrea hartu gabe edo haien ordeztu erantzun gabe.	

Ikaskuntza in situ egitea, zeinak esperientzia-elementu batzuk eskaintzen baititu, ikasgelako irakaskuntzatik kanpo geratzen ahal diren alderdiak barneratzen laguntzen dutenak.	
Ongi egin dutena azaltzea eta adore ematea lortu duten arrakastarengatik, lanarekiko interesa eta tolerantzia areagotzen lagunduz.	
Zehaztasunetik eta alde zurreko esperientzietatik abiatzea, ikaskuntza berriak barneratzeko.	
Metodologia aktiboak eta lankidetzakoak erabiltzea aurretiazko entrenamenduekin, prozesu osoa uler dezaten hasieratik "produktua" sortu arte.	
Maila anitzeko jarduerak planteatzea, eskakizun-maila desberdinekin, adimen-desgaitasuna duten ikasleentzako jarduerak-mailak egokitu ahal izateko.	
Ikasitakoa bizitzan edo lanean benetan aplikatzearekin lotzea.	
Inguruneetan iragarritasun kognitiboa inplementatzea.	
Testuak irakurketa errazera egokitzea: idazketari eta maketazioari buruzko jarraibideak eta gomendioak. UNE 153101: 2018EX araua	
Eguneroko bizitzako trebetasunak txertatzea ikasgelako jarduerak guztietan (garbitasuna, ordena, arropa zaintzea, etxea zaintzea, janaria prestatzea, etab.).	
Komunitatearen baliabideak ikaskuntzen elementu natural gisa erabiltzea (garraioa, dendak, enpresak, zerbitzuak, etab.)	
Autodeterminazioa sustatzea, hautuak egiten, erabakien ondorioetan erantzukizuna hartzen, laguntza bilatzen eta bizitza kontrolatzen lagunduta.	
Pertsonarengan oinarritutako ikaskuntza-eredua lehenestea, non adimen-desgaitasuna duen ikaslea bere Bizitza Plan Indibidualaren lehentasunezko parte den.	

1.3. EBALUAZIOARI DAGOZKION ALDERDIAK

Orokorrak:

Ebaluazio jarraitua, hezigarria eta integrala lehenestea eta adimen-desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-premia berezietara egokitzea.	
Ikasleei ebaluazio-sistemaren berri ematea une oro, eta sistema aldatzen bada, horren berri ematea.	
Autoebaluazioa ikaskuntza-prozesuan eta heteroevaluazioan txertatzea, ikasleak barne.	
Ikaskuntza-egoera desberdinetara egokitutako ebaluazio-tresnak erabiliko dira, ikaslearen balorazio errealagoa eta objektiboagoa lortzeko.	
Ikasleari LHko ebaluazio-deialdiak bertan behera uzteko aukeraren berri ematea.	
LHren hasieran, ikasle bakoitzaren hasierako ebaluazioa egitea aurretiazko ezagutzei, curriculum-gaitasunari eta ikaskuntza-estiloari buruz, bakoitzaren ezagutza pertsonalizatua	

izateko.	
Noten buletinean jasotako prestakuntza-modulu ebaluatuen berri ematea ikasleari, eta azterketa bateratua egitea berarekin ikasturteko hiruhileko bakoitzean, nota horiek entregatu aurretik.	
Azterketen egutegia behar besteko aurrerapenarekin ezartzea, behar bezala antolatu ahal izateko.	
Lanak ongi aurkezteko ereduari buruzko informazioa aurreratzea: jarraitu beharreko eskema, letra mota, formatua...	
Proiektua edo lana ebaluatzeko irizpideei buruzko errubrika bat aurreratzea.	
Bere lanaren alderdi positiboak indartzea eta itxaropen positiboak transmititzea.	
Bere koaderno edo eguneroko zeregina ikasleak eskuratzen dituen ezagutzak ebaluatzeko tresnatzat hartzea.	

Azterketa egin aurretik:

Azterketa irakurketa errazean diseinatzea, egokitzapen-jarraibideei jarraituz (galdera motak, letra-tamaina, hedadura, irudi indartzaileak, orrialdekatzea, formatu orokorra, etab.).	
Aldez aurreko entrenamenduak egitea, antzeko forma duten mota bereko azterketak erabiliz: test modukoak, galdera laburrak, garapen luzea, etab. Horretarako, exekuzio-denborak kontrolatuko dira.	
Binakako lana erabiltzea, banaka egindako ereduazko azterketa bat zuzentzeko.	
Aztertu beharreko edukiari buruzko ikasketa-gidoiak, laburpenak eta kontzeptu-mapak irakurketa errazean ematea aldez aurretik.	
Lanbide-profil bakoitzaren curriculumean zehaztutako ikaskuntzaren emaitzetan eta ebaluazio-irizpideetan oinarritutako probak prestatzea.	
Proba egokitzea, ikasitakoari buruzko galdera zehatzak eginez, ikaskuntzak orokortzeko zailtasuna eta metakognizioko zailtasunak kontuan hartuta.	

Azterketan zehar:

Adimen-desgaitasuna duten ikasleak irakasleen ondoan jartzea, distrakzioak saihesteko.	
Beharrezkoa bada, eta ikaslearen baimenarekin, azterketa beste leku batean egiten uztea.	
Behar izanez gero, azterketa eta galderak ozen irakurtzen ahal dira.	
Ikasleek azterketaren galderak ulertzen dituztela ziurtatzea eta haien zalantzak argitzea.	
Azterketako enuntziatu eta galderen gako-hitzak nabarmentzea eta hitz nagusiak letra lodiz,	

tinta gorriz eta abarrez nabarmentzea.	
Komeni bada, erabili ahots-irakurgailua galderen enuntziatuetarako.	
Soilik erakutsi erantzun beharreko galdera, gainerako galderak estaliz.	
Beharrezkoa denean, azterketa egiteko denbora luzeagoa ematea eta bi saiotan egiteko aukera ematea.	
Taldeko eta banakako denboraren kontrola erraztea, arreta-deiak eginez, arbelean oharrak idatziz, geratzen den denbora gogoratuz eta azterketa entregatu baino minutu batzuk lehenago abisatuz.	
Ikasleei azterketa berrikus dezatela gogoraraztea, entregatu aurretik.	

Azterketa egin ondoren:

Azterketa zuzendua ikusteko aukera ematea, eta erantzun zuzena azaltzea.	
Zuzenketa azkarra egitea eta egindakoa hobetzeko aukera ematea.	
Edukia baloratzea, eta ez hainbeste forma (ez zigortu ortografiagatik –salbu eta ortografia ebaluatzen ari bada–, antolaketagatik, aurkezpenagatik...).	
Idatzizko erantzunak ahozko azalpen batekin osatzeko aukera ematea.	

3. ETXEAN LAN EGITEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ORIENTABIDEAK

Irakasleendako orientabideak:

Ikasleak LHBZ bat egiten badu, jarduteko irizpide komunak ezartzea irakasle teknikoen eta pedagogia terapeutikoko irakasleen artean.	
Agenda hasieran gainbegiratzea, zereginaren erregistroa egiaztatzeke eta ikasleak zereginean eta erantzukizunean inplikatzeko joateko.	
OMEko ikasleak badira, asteko zereginak zehaztea irakasle teknikoen eta eremukoen artean, pedagogia terapeutikoko profesionalak bere adostasuna adierazi ondoren.	
Adimen-desgaitasuna duten ikasleek gradu arrunt bat egiten badute, betebeharren kantitatea eta zailtasun-maila doitu eta koordinatzea irakasleekin, eta espazio komun batean erregistratzea.	
Zereginak irakurketa errazeko formatura eta desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-premietara egokitzea, ikaskuntzaren emaitzak eta programatutako ebaluazio-irizpideak erreferentziazat hartuta.	
Irakasleekin adostea etxeko lanak ebaluazioan izanen duen eragina, eta ikasleei horren berri ematea.	

Familiendako orientabideak

Ikasturte hasieran, bilera bat eginen da familia guztiendako. Bilera horretan, zehatz-mehatz azalduko zaie prestakuntza (curriculum, prestakuntza-moduluak, denboralizazioa, ebaluazioa, eskola-ingurunetik kanpoko zereginak, etab.), eta ikasleen autodeterminazioa nabarmenduko da, LHko hezkuntza-etapa kontuan hartuta.	
Bilerak eginen dira hasieran, hiru hilean behin, eta adimen-desgaitasuna duten ikasleen tutore aritzen diren profesionalek informazioa kontrastatzeko egokitzen jotzen dutenean. Jarraipen-bilera horiek ezinbestekoak dira prestakuntza guztietan, eta, bereziki, ikasleak gradu arrunt bat egiten ari direnean.	
Familiekin bilerak planifikatzea, ikasleek egokitzen jotzen dituzten proiektu edo jardueretan pertsonalki aurkez dezaten beren lana, eta familiak parte hartzea bultzatzea.	
Ikaslea adin nagusikoa denean, ikaslearen inplikazioa adostea familiekin egiten diren bileretan.	
Familiei aholku ematea adimen-desgaitasuna duten ikasleen ezaugarriekin eta ikaskuntza-estiloarekin lotutako alderdietan: arreta, memoria, pertsonekzioa, autonomia, komunikazioa, jokabidea eta autoerregulazioa.	
Zaintza pertsonaleko eta eguneroko bizitzako ikaskuntza funtzionalekin lotutako zereginak lehenestea: dirua maneiatzea, erantzukizunak etxeko lanetan, garraiobideak erabiltzea, komunitatean parte hartzea.	
Ikasteko lekuan distrakzio-elementuak murriztea.	
Lan-agenda kudeatzen laguntzea.	

4. IRAKASLEEK ETA FAMILIEK KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI EMOZIONALAK

Konfiantza-maila ona sortzea irakasleen eta familiaren artean.	
Ikasleei beren prestakuntzarekin lotuta hartzen diren erabaki guztien berri ematea.	
Banaka indartzea, lorpenengatik eta egindako ahaleginengatik.	
Lotura positiboa sortzea, batez ere ikaslearen, tutorearen eta familiaren artean.	
Familiei laguntzea etapa aldatzeko eta prestakuntza amaitzeko prozesuetan.	
Praktiken prozesuari buruzko informazioa ematea, ikasleen autonomia sustatzeko joan-etorrietan eta egin beharreko zereginetan.	